

«Sagardoetxea eta sagasti pedagogikoa gure kulturaren erakusle izango dira»

Sagardun partzuergoaren sortzearekin batera etorri ziren «sagasti pedagogikoa» eta «sagardoetxea» eratzeko ideia. Urtetako lanaren ondoren, lehena aurten jarriko da abian eta, Joxe Angel Goñik adierazi duenez, bigarrenari dago-kion proiektua bide onetik doa.

-Erakundeek jarrera baikorra agertu dute sagardoetxearen inguruan. Badago akordiorik?
Udala ere partzuergoaren kide da eta pozik jaso dugu Fo-

ru Aldundiaren eta Jaurlaritzaren albistea. Bestela, gure aldetik, sagardoetxea aspalditik zegoen martxan.

-Zertan datza zehazki sagasti pedagogikoaren proiektuak?

Kultur Etxearen alboan ezarriko dugu. Interpretazio gu-nea egongo da, panelak, ikus-entzunezko materiala eta abar. Sagarrondoaren garape-na bertatik bertara erakutsi nahi dugu, sagardogintza ger-turatzeko ekimena da.

-Sagardogintzak Astigarragan

duen garrantzi ekonomikoa aintzat harturik, zein eragin izango dute bi proiektuek?

Sagardoetxearen ekimena erabat garrantzitsua da. Sa-gardoak eragina du Astiga-rragako ekonomian, eta proiektuek indartu egingo du-te. Turismoaren aldetik hasi-ta, jendea erakarriko du eta, nola ez, ostalaritzari ekarriko dion onura ukazina da. Tre-bakuntza eta jakintza ahalbi-detuko ditu, sagardotegien kultura eta hemengo ohiturak batuko baititu. Hainbat ikus-puntutik da onuragarria,

proiektuā bera zabala baita.

-Aurtengo sagardoa 2003koa-rekin alderatu duzue, klimato-logiaren eragina nabarmendu-ta. lazkoa baino pattalagoa dela aipatu dute batzuek...

Bai, oso aromatikoa da eta, ni-ri behintzat, ona iruditu zait. Uste dut aurtengo sagardoa polita izango dela, beharbada joan den urtekoa baino maila baxuagoa izango du. Azken urteak nahiko arazotsuak iza-ten ari dira, lehor-teak direla eta. Aurten, gainera, gaitza sortu zaigu eta horrek ere eragina izan du. Tratamendua jaso dute, noski, eta zuzendu dugu. Hala ere, ohitura onak bultzatu eta aurrera egin be-har dugu, aurtengo sagardoa txarra dela inork ezin baitu esan. •

A.A.